

oroz aitzurik. Beti jolas bardiñean, liburuak idazten ! Baiña ni bein bertan ba'noakio, gelara jolas-zurrean, bertatik zoaz zu nire billa, garrasi baten esanik: "Biurria zaitut, seme !" Zarata pizkat atara ordukoxe zuk diraustazu: "Ez ete dakuszu aita lanean dagoala ?" Ai, ez dakit zer atsegin izan daikean beti idatzi ta idatzi !

Eta nik aitaren arkatza naiz lumea artu ta bere antzera a b e g i j k l m n ñ o p r idazten jarten nazanean, bere libururen batean batez be, zer dala-ta orrelan sumintzen zaiataz, ama ? Ari ez dautsazu egundo be asarrerik egiten idazten daua-lako ! Antza danez, ez dautzu ardurarik arek ainbat ingi, paper alperrik galdu arren. Nik, oster, orritxu bat bera artzen ba'dot ontzi bat egiteko, or zaukadaz agiraka : "Zoratu bear nok, seme !" Eta aitari, ainbat orri alderdi bietatik izki baltzak egiñik ondatu arren, ez dautsazu ezer esaten.

### KARTERU TXARRA

Ama, esaidazu, zergaitik, zagoz ain ixil ta goibel, or zelaian jarrita ? Ez dozu ikusten, euria leitotik sartzen yatzula, ta bustiten zagozala ?

Entzun, totoa laurak joten dago ta anaiak, onezkero, eskolatik etorri bear dau. Zer dozu, ama, esaidazu; zergaitik zagoz ain zera ? Gaur ez ete dozu aitaren eskutizik izan ?

Erri osoak euki dau gaur kartaren bat, neuk ikusi dot. Aitaren kartak, eskutitzak, bakar-bakarrrik gordeten ditu zorro baten, berak irakurteko. Ama, karteru ori okerra, gaiztoa, txarra dozu, ziur nago !

... Baiña, origaitik, ama, etzaitez illun egon. Begira, biar or urreko errian azoka eguna da. Doala neskamea ta erosi dagizala luma ta papera. Neronek idatziko dautzudaz aitaren karta guztiak. Eta ikusiko dozu, zelan ez dozun aurkitzen uts bat bera be.

Zuzen-zuzen idatziko dautzut A'tik K'raiño. Zer dala-ta, barre zuk, ama ? Zuk uste dozu nik ez dakidala aitag baizen ondo idazten ? Ikusiko dozu, ba ; ol-ertzez marratuko dot papera, ta arduratsu idatziko dot, izkiak (letrak) oso andi egi ñik.

Eta amaitzen dodanean, aitaren antzeko arlo-te izango nazala uste dozu karteru motz orren zakura idazkia botatzeko ? Nik neuk ekarriko dautzut bertatik, eta pizkaka-pizkaka irakurten lagunduko. Karta-zaiñari ez yako eder, badakit nik, kartarik onenak zuri emotea !

## GIZURENA

Egizu zuk, ama, itzul-bira bat dagigula ta errialde ez-ezagun arriskutsu bat zearkatzen dogula. Zu jarrita zoi az zeure aulki-agan eta ni zure